

Zertan datza GIBaren proba?

GIBaren proba da GIBarekin infektatuta gauden ala ez jakiteko dagoen modu fidagarri bakarra.

Erabili ohi diren GIBaren diagnosi-probek, odolaren azterketa erraz baten bidez, gorputzak GIBaren aurka sortzen dituen antigorputzak neurtzen dituzte.

GIBaren proba nahi duenak egin dezake, doan, hura egin aurretik eta ondoren, azalpenak emango dizkiote eta guztiz isilpekoa da.

Egin daitezkeen proben inguruko informazio gehiago aurki dezakezu www.msc.es web gunearen GIB/Hies atalean.

Noiz egin behar dugu GIBaren proba?

Arriskuko praktikaren bat eduki duzula uste duzunean, ez itxaron: zoaz zure sendagilearengana edo osasun-zentrorra. Han, zure kasua aztertuko dute, proba egiteko esango dizute eta emaitza negatiboa lortzen bada, errepikatu beharra dagoen eta, hala izatekotan, noiz adieraziko dizute.

Probak hautemateko bezainbeste antigorputz eratzeko immunitate-sistemak denbora bat behar du eta batetik bestera alda daiteke. Nahiz eta infektatuta egon oraindik emaitza negatiboa lortzen den denboraldi horri "leiho aldi" deritzo. Infektatu eta bi eta 8 aste bitartean behar izan ohi dira gure gorputzak probak hautemateko adina antigorputz eratzeko eta ia guztiek sortu ditugu arriskuko praktikatik hiru hilabete igaro direnean.



Zergatik ez dugu jadanik aholkatzen GIBaren

proba egin arte hiru hile itxarotea?

Orain ditugun probek lehenago hautematen dituzte antigorputzak.

Sendagileen jarraipena lehenago hasten da eta infekzioa besteei transmititzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak lehenago hartzen dira.

Infekzioaren ondorengo lehenengo asteetan (primoinfekzio deritzon fasea) infekzioa transmititzeko probabilitatea oso handia da. Kasu gehienetan, duela gutxi infektatu den norbaitekin harreman sexualak edukitzerakoan transmititzen da infekzioa. Horrexegatik, oso garrantzitsua da pertsona infektatzen denetik diagnostia egiten zaionera arteko denbora murriztea.

Arriskuko praktikatik denbora pasatu ahala, gero eta motibazio txikiagoa izaten da proba egiteko.

Non egin dezaket GIBaren proba?

Sare publikoko osasun-zentroetan doan eta isilpean egingo dizute GIBaren proba:

- Lehen arretarako zentroetan: familia medikua.

- Familia planifikazioko zentroetan.

- Sexu-transmisioko Gaixotasunen Zentroetan (STG).



Badira zenbait hiritan proba modu guztiz anonimoan eta dokumentaziorik aurkeztu behar izan gabe egiten dizkizuten zentroak (STG zentroak gehienbat).



Zenbait GKEek ere proba eskaintzen dute haien programetan. www.red2002.org.es web gunean begira dezakezu Autonomia Erkidego bakoitzeko GKEen zerrenda.




Analisi klinikoak egiten dituzten laborategietan ere egin daiteke.




GIBaren proba non egin edo haren inguruan gehiago jakiteko, liburuxka honetan dauden telefonoetara dei dezakezu.


Zer da GIB?


 Giza Inmunoeskasiaren Birusa (GIB) infekzioa eta Hiesa eragiten duena da. Immunitate-defentsak suntsitu egiten ditu eta infekzioak, tumoreak eta bestelako hainbat gaixotasun edukitzea eragiten du.


Zein da GIBa transmititzeko modua?

 GIBa preserbatiborik gabeko harreman sexualetan, injektatzeko material infektatu bidez transmiti daiteke edo haurdunaldian, erditzean edo edoskitzean amak haurrari. Ez da muxuen edo laztanekin transmititzen, ezta etxe berean, lanean edo eskola berean egoteagatik ere. Mahaiko tresna edo edalontzi berak erabiltzeagatik edo kirol instalazio berak erabiltzeagatik ere ez da transmititzen.

Nola prebeni dezakegu GIBaren infekzioa?

 Infektatuta daudela dakigun edo dauden ala ez dauden ez dakigunekin izango ditugun sexu-harremanetan preserbatiboa erabiliz. Preserbatiboak GIBaren sexu-transmisioa eragozten du eta beste sexu-transmisioko gaixotasunetaz babesteaz gain, nahi ez diren haurdunaldiak ere eragozten ditu.

 Injektatutako drogak kontsumitzen direnean, beti material esterila erabiliz eta xiringak, orratzak edo bestelakoak ez partekatuz.

 Haurdun bazaude eta GIBa baduzu, badira zure haurrari birusa haurdunaldian eta erditzean transmititzeko arriskua modu oso eraginkorrean murrizten duten tratamenduak. Infektatutako ama batek ez dio bularra emango bere haurrari.

Orduan, guztiok egin behar al dugu proba?

Espanian urtean milioi bat probatik gora egiten dira, baina ez da nahikoa. Beraiek jakin gabe, 30.000 eta 40.000 pertsona inguru dagoela uste da, horregatik gomendatzen zaie proba ondorengoel:

Haurdun dauden edo haur bat eduki nahi duten emakume guztiak.

Sexu-transmisioko gaixotasunen bat, tuberkulosia edo hepatitisia eduki duten guztiak.

Bikote egonkorra dutela-eta, preserbatiboa erabiltzeari utzi nahi diotenak.

Ondorengo arriskuko praktikaren bat eduki duten guztiak:

- GIBa zuen emakume edo gizon batekin preserbatiborik gabeko koito bidezko sexu-harremanak (uzkikoak edo baginakoak, eta eiakulazioa egon bazen ahokoak ere) izan dituztenak.

- Hainbat bikotekiderek edo infektatuta zegoen ala ez jakin ezean preserbatiborik gabeko koito bidezko sexu-harremanak (uzkikoak edo baginakoak, eta eiakulazioa egon bazen ahokoak ere) izan dituztenak.

- Drogak injektatzeko materiala partekatu bada (xiringak, orratzak, koilarak, iragazkiak...)

PROBA NON EGIN JAKITEKO EDO HAREN INGURUAN GEHIAGO JAKITEKO ONDORENGO TELEFONOETARA DEI DEZAKEZU:

Gurutze Gorria 900 111 000
900 ARROSA 900 601 601

Andaluzia 900 850 100
Aragoi 976 715 266
Asturias 985 338 832
Balearrak 971 176 868 - 971 360 426
Kanariak 902 114 444 - 922 279 397
Kantabria 942 207 745/732
Gaztela-Mantxa 900 111 000
Gaztela eta Leon 983 413 600
Katalunia 900 212 222
Extremadura 900 210 994
Galizia 881 542 914
Madril 900 111 000
Murtzia 900 706 706
Nafarroa 848 423 396
Euskadi 943 006 464
Errioxa 941 291 197
Valentziar erkidegoa 900 702 020
Ceuta 900 152 368
Melilla 952 640 411



badanie jest odpowiedzią
poddaj się badaniu
proba da erantzuna
egizu
В ИССЛЕДОВАНИИ МНЕ НАМЕРЕН
ОТГОВОРИТЬ
НАПРАВИ ГО
la prova è la risposta
fà-la
检测消除疑虑
请快行动吧
o teste é a resposta
fá-lo
GIB/HIES
proba
da erantzuna
egizu
la réponse est dans le test
faites-le
التحليل سيعطيك الإجابة
قم به
a proba é a resposta
faina
a test is the answer
take one
анализ необходим
сделайте его
analiza este răspunsul
fă-ți testul
la prueba es la respuesta
házte-la

GIB
HIES

Asko dira GIB/HIESaren proba egiteko arrazoiak

Gero eta gehiago dira infekzio berriak arriskuan zeudela jakin gabe hartu dutenak. Espainia mailan, "arriskutsuak ez ziruditen" lagunekin harreman sexualak izan eta gero harrapatu du kasuen %77ak.

Gaur egungo tratamenduak lehengoak baino askoz ere eragingarriagoak dira. GIBaren infekzioa garaiz hautemateak jarraipen medikua eta bizi-kalitatea zein bizi-itxaropena asko areagotzen duen tratamendu eraginkorra hartzen hastea ahalbidetzen du.

Ikusi denez, infektaturik daudela dakiten pertsonen sarriago jarraitzen dituzte infekzioa besteei transmititzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak. Diagnosiaren onurak norbanakoa baino haratago doaz, infekzio berrien kate oso bat eten baitezakete. Infekzio berrien erdia baino gehiago infektatuta daudela ez dakitenean ondoriozkoak dira.